

**XXV. JARDUNALDIA ESKOLA HIZTUN BILA
XXV EDICIÓN ESKOLA HIZTUN BILA**

2021-10-27 Donostia-San Sebastián 27-10-2021

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburua, Saila ordezkaten duzuen goi-arduradunok, Nafarroako Gobernuaren ordezkariok, erakundeetako ordezkariok, bertoratutako eta streaming bitartez jarraitzen ari zareten irakasleok, jaun andreok, egun on.

Ongi etorri Hiztun Bila Jardunaldira hurbildu zareten guztioi, bai hemen zaudeteno bai modu telematikoan jarraitzen ari zaretenoi ere.

Jim Cummins jauna, ongi etorri eta eskerrik asko!

Hogeita bostgarren urteurrena ospatzen dugu gaur. Momentu historikoa euskararen normalizazioan eta, baita ere, pandemia garaian ospatzen duguna. Horregatik, lehenengo eta behin, pandemian zehar ikastetxeetan egiten ari zareten lana eskertu eta goraiatu nahi dut.

Pasa den ikasturtea, berezia eta zaila izan zen. Zuen ahaleginari eta kemenari esker ikasturtea gainditu genuen, era bikain batetan gainditu ere. Aurtengo hasiera ona izaten ari da baita ere.

Aurrez aurreko eskolak bermatzea funtsezko “gizarte zerbitzua” bermatzea izan da. Hezkuntza, familia bizitza eta lana uztartu ahal izan ditugu; eta horrek gizarteari lasaitasuna eskaini dio. Izan ere, pandemiak agerian utzi du, inoiz baino argiago, eskolak gure gizarte bizitzan betetzen duen paper garrantzitsua.

Euskararen ikuspegitik ere nabaria izan da eskola-jardunaren garrantzia. Arlo honetan, zuen ekarpena inoiz baino beharrezkoagoa da: Ulibarri Programak dagoeneko ibilbide luzea du. Helburua beti izan da ikastetxeetan euskararen ezagutza eta erabilera indartzea. Gelan, eta gelatik haratago ere. Jakin badakit, Ulibarri Programan, 400 ikastetxe inguru ari zaretela parte hartzen. Horrek esan nahi du tinko jarraitzen duzuela, erronkei ilusioz helduz eta egoera berriei aurre eginez.

Egoera eta erronka berriak aurrez aurre ditugu. Agertokia geroz eta globalagoa da; beraz, euskara eta, horrenbestez, euskal kultura, hurrengo belaunaldiei ahalik eta bizien transmititu behar diegu.

Zeregin horretan hezkuntza sistema sozializazio-gune garrantzitsua da; bai gaztetxoak hezteko, baita belaunaldien arteko transmisioan eragiteko.

Berrogei urteko ibilbidean, Hezkuntzan eraldaketa nabaria gertatu da. Duela ia berrogei urte, Legebiltzarreko gehiengo zabal batek euskararen erabilera normalizatzeko Oinarrizko Legea onartu zuen.

Euskararen Legea eredugarria izan da: Bere onarpen zabalagatik; Berrogei urte igaro ostean indarrean jarraitzeagatik; eta Eremu estrategikoak, erakunde publikoen betebeharrak eta guztion eskubideak argi adierazteagatik.

Testuinguru horretan, Euskadin eman den irakasleriaren euskalduntze-prozesuak ez du munduan parekorik izan.

Harro egon behar dugu orain arte lortutakoarekin eta aurrera egiten jarraitu behar dugu, euskararen jabeak ez dakarelako berez erabilera. Gakoa da oinarri sendo bat izatea eta Estrategia, Konpromisoa eta Ibilbidea partekatzea. Hori da, baita ere, Hezkuntza Hitzarmenaren xedea.

Asteburu honetan eragile eta aditu ugari ikuspuntu ezberdinak trukatu dituzue, gure Hezkuntza sistema datozen urteetan zutabe sendoetan kokatu dadin. Herri erronka dugu esku artean: Hezkuntza sustatzea, eguneratzea eta hobetzea.

Este fin de semana, Eusko Ikaskuntza y el Departamento de Educación nos han ofrecido un marco para compartir una reflexión sobre el futuro de la Educación. Nos encontramos ante una oportunidad.

He reconocido el esfuerzo realizado para mantener la Educación presencial a lo largo de la pandemia. Ha sido un ejemplo de la capacidad y tenacidad de la comunidad educativa vasca.

Este ejemplo nos permite compartir las lecciones aprendidas y trabajar juntos por un Pacto educativo, “Hezkuntza Hitzarmena”, con el objetivo de seguir mejorando nuestro modelo.

Es una oportunidad que debemos seguir trabajando juntas, juntos. En esta primera fase, escuchando. A continuación, tejiendo con discreción los acuerdos

que nos permitan avanzar en un modelo adecuado a la nueva realidad y capaz de responder a los retos de la Educación futura.

Tras las enseñanzas de la pandemia, estoy convencido de que vamos a ser capaces de avanzar desde el consenso. Capaces de responder al reto que supone la actualización y mejora de la Educación en Euskadi desde el acuerdo en positivo.

Amaitzera noa.

Jardunaldi hau, aipatu dudan berriztatze eta etorkizun senaz antolatu duzue. Ekarpenak, mahai inguruak eta ikastetxeetako esperientziak izango dituzue eskura.

Adituen artean, hizkuntzen didaktikan eta eleaniztasunean, James Cummins Torontoko irakaslea eta nazioarteko aditua dugu gurekin. Aukera paregabea guztiontzat eta, argi esango dizuet, niretzat ere bai. Arreta eta interes handiz entzungo dut bere ondorengo hitzaldia.

Eskerrik asko Cummins jauna, eta eskerrik asko bertoratutako eta telematikoki jarraitzen ari zareten guztioi. Egun ona izan dezazuela